

EUSKAL DEITUREN IZENDEGIA: IRIZPIDEAK

Bilbo, 1996, apirila

*Mikel Gorrotxategi,
Onomastika batzordeko idazkaria*

IZENDEGI HAU GAUZATZEKO ERABILITAKO IRIZPIDEAK

Esku artean duzuen *Euskal Deituren Izendegia* gauzatzeko erabilitako irizpide nagusia deiturak idazkera akademikoari egokitzea izan da, baina Onomastika batzordeak ez du grafia aldaketa hutsean gelditu nahi izan. Izan ere, euskarak mendeetan zehar eskas izan duen ofizialtasunaren ondorioz beste hizkuntzek aldaketa handiak sortarazi dituzte gure deituretan eta, hau jakinik, bidezko iruditu zaio aldaketa horiek, neurri batean bederen, atzera bere “onera” —honela mintza badaiteke— ekartzen saiatzea.

Guztiz ere, sarritan ezinezko gertatzen da egungo egunean gure inguruko erdarek eragindako aldaketa eta desbideratze maiz sakon eta handiak lehengora ekartzea, batzuetan arrazoi linguistikoengatik —aspaldiko dokumentazioa ez ezagutzeagatik, deitura baten etimologia zein den ez jakiteagatik, edo biengatik—, besteetan soziologikotzat edo soziolinguistikotzat jo daitezkeen bestelako arrazoiengatik —deiturek nolabaitko estratifikazio maila erakusten dute, nahiz estratifikazio hori askotan berri baino berriagoa den—.

Bestalde, anitzetan ez dago jakiterik aldaketa bat gure inguruko erdarek eragin duten edo euskara bera izan den haren bultzatzaile. Hor daude adibidez, *Akarreta*, *Biorlegi*, *Berrueta* eta *Faguaga* ondoan *Akerreta*, *Beorlegi*, *Berroeta* eta *Fagoaga* dutenak. Honelakoetan aukera biak eman dira ontzat.

Deituren egokitzea ez da nolana egin; burutara erakartzeko lan eta ikerketa sakon eta zehatzak egin dira, hiru iturri nagusi hauek erabili direlarik:

1. Koldo Mitxelena baren *Apellidos Vascos*, maisu lana.
2. Euskal onomastikaren inguruko beste hainbat liburu.

3. Bi urtez bi bekadunek burututako lan zabala, deiturak, oikonimoak eta maiz egungo euskaldunen testigantzak biltzen dituenak.

Gauza jakina da euskal deiturak egokitzeke orduan Hegoaldean, eskuetatzen den arazorik handienetako bat —handiena ez bada— gaztelaniak falta dituen txistukarien tratamenduari dagokiona dela. Esate baterako, *Betolatza* deitura antzina *Betolaça* idazten zen, baina gero gaztelaniak ebakera afrikaria galdu zuen, eta aurrerago ç grafema baztertu, aipatu deitura hori *Betolaza* idazten hasi zelarik, jatorrizko afrikaria isladatu gabe.

Iparraldeko deiturez den bezainbatean, gauza ezaguna da frantsesak euskal txistukariak emateko arazo handiak izan dituela eta dituela, euskal [š] eta [s] soinuak, esaterako, sistematizazio handirik gabe, **s**, **ss**, **c** edo **ç** grafemen bidez aditura ematen direla. *Izaguirre* deitura, konparaziorako, *Isaguirre*, *Issaguirre* eta *Içaguirre* idatzi izan da.

Aipa daitekeen beste grafema arazo emalea **j** (eta **g**, **e** eta **i**-ren aurrean) dugu, Hegoaldean, jakina den bezala, [x] ebakitzen dena, erdal erara. Soinu hori euskaraz [š], [j] edo [ž] da kasu askotan, eta egoera hau kontuan harturik, erdal grafiazko *Múgica* eta *Mendeja*, *Muxika* eta *Mendexa* eman dira, eta *Gojenola* eta *Ojanguren*, *Goienola* eta *Oianguren*, euskaraz dagokien bezala.

Puntu honetan kontuan hartu beharra dago gaztelaniaz [ž], [š] > [x] aldakuntza fonetikoa burutu zela, eta honen ondorioz —nahiz geroago— **j** eta **g** (**e** eta **i**-ren aurreran bigarren hau, esan bezala) grafemak orokortu zirela, jatorriz soinu sabaiaurreko igurzkari ahoskabe edo ahostuna zuten hitzetan, franco zabaldua zegoen **x** grafemaren kaltetan.

Esan beharrik ez dago deitura hauen gutzien jatorrian dauden toponimoen eta oikonimoen tokian tokiko ebakera zein den ikertu dela, burututako aldatetari oinarri sendoa ematearren. Adibidetzat Markina-Etxebarriko **Atzorin** baserrian iturburu duen **Azorín** eta jatorriz Leioako **Arauka** baserrikoa den **Arauca** deiturak aipa daitezke, edo Gipuzkoan eta Nafarroan oso zahaldurik dagoen **Goya**.

Euskaltziandiak, Bergaran 1978ko VIII.en Biltzarraren ondotik hartutako bosgarren eta seigarren erabakiei jarraikiz, deituren egokitze honetan ez dira kontuan eduki, bustidurari eta aspirazioari dagokienez, euskara baturako eman diren arauak, eta euskalkien nortasuna errespetatu da. Hurbileko hainbat hizkuntzatan antzeko jokabidea segitzen da, zenbait aldiz idazkera arautuarekin bat ez datozen aldaerak ere gordetzen direla: *Navasués* / *Navasqües* (sic), *Dublanc* / *Dublang* edo *Schmid* / *Schimitt* / *Schmidt*.

Ahozko lekukotasun biziak erabakitzaileak izan badira ere askotan, jakina da deiturak eta oikonimo-toponimoak estuki loturik dauden arren ez direla erabat gauza bera, eta hau dela eta, adibidez, *Cenarruza*, *Egúzquiza* eta *Lazcano* deiturak *Zenarrutza*, *Eguzkitza* eta *Lazkano* eman dira, **c** → **z** edo **c**, **qu** → **k**-ren moduko aldaketa grafiko soilez gainera —nahiz aurreko bieci dagokienez ebakera ere aldaketa baden— txistukarien egokitzea ere burutu delarik, jatorrizko afrikariei atxikiz, baina herriak eta baserriak izendatzen dituzten egungo

Ziortza, *Euzkitze* edo *Lazkao*-ra itzuli gabe. Horrela bada, deituren eta maizkara hauen iturburu diren oikonimo-toponimoen arteko oreka gorde nahi izan da egokitzea burutzerakoan, azken horien ebakera aintzat hartuz, baina deituraren estratifikazioa ere gordez.

Lan esparrua Euskal Herri osoa izan da, baina Iparraldeko deitura gutxi samar sartu dira. Izan ere, datuak lortzeko izan diren zailtasunak ez ezik, Ipar Euskal Herriko deiturek nozitu duten itxuraldatze sakonak ere horretara eramandu batzordea. Horrez gain, euskarak bertan oraindik ofizialtasunik ez duenez gero, eskaerak bakanak izan dira.

IRIZPIDE ZEHATZAK

1. Euskal deituratzat, edozein hizkuntz jatorritakoa izanda ere, Euskal Herrian sustraitu dena jo da, nahiz esku artean duzuen lehen liburuki honetan euskal jatorrikoak ez diren gehienak agertzen ez diren.

2. Iturri amankomuneko aldaera desberdinak zeuden-zeudenean gorde dira, batera bildu gabe, tartean aldaketa grafiko arbitrariarik edo sasi-etimologiarik ez bazen. Horrela *Garitaonandia*/*Garitaonaindia*-ren kasuan aukera biak eman dira, baina ez *Uribeetxebarria*/*Uribeetxeberria*-ren moduko batean, bigarren forma lehenaren aldaera berria baita.

3. Hainbat euskal deituratan —Iparraldekoetan bereziki— aurkitzen dugun eta iturburutzat *de* preposizio erdarazkoaren aglutinazioa den *D'* edo *D-*kendu da: *Dapesteguy* → *Apeztegi*, *Daranaz* → *Aranatz*, *Durruty* → *Urruti*.

4. Hasierako bokala galdu den kasuetan forma biak proposatu dira gehienetan —jatorrizkoa (toponimian, oikonimian edo antroponimian bizirik dagoena) eta hasierako bokala falta duena, lehentasuna aurrenekoari emanez: *Recalde* → *Errekalde* / *Rekalde*, *Respaldiza* → *Arespalditza* / *Respalditza*, etab.

5. Euskaratik kanpoko eraginari zor zaizkion soinu aldaketak eta horren bidez sortutako formak atzera, beren jatorrizko erara, ekarri dira. Horretarako, sorburu izan dituzten lekuizenen gaur egungo euskal ebakera ikertu da: adibidez, *Ixurko*, *Lexartza*, *Kerexeta*, *Muxika*, etab. eta ez *Ijurko*, *Lejartza*, *Ke-rejeta*, *Mujika*, etab.

6. Lekukotasuna, toponimo edo oikonimoa, segurua denean, edota etimologia garbia denean, erdaraz ez dituen txistukari afrikariak berreskuratu dira: *Eguzquiza* → *Eguzkitza*, *Icaza* → *Ikatza*, *Imaz* → *Imatz*, *Oscosz* → *Oskotz*, *Pagaza* → *Pagatza*, etab.

7. S eta Z grafemak jatorriz bakarra den deitura baten bi aldaeratan azaltzen direnean, egungo lekukotasuna edo etimologia argia bada, batera bildu dira: *Apesteguy* / *Apeztegui* → *Apeztegi*. Hala ere, euskalkien usadioak gorde

dira, *Basterretxea* deitura bizkaierazkoan adibidez. Deitura baten jatorria euskalki anitzekoa denean, *Gastañaga* kasu, aukera biak eman dira (*Gaztañaga / Gastañaga*), beti ere jatorrizko ebakerari lehentasuna emanez.

8. Ozenen (n, l, r) ondoko igurzkarriak afrikatu dira. Dena den, afrikatu gabeko formak ere onartu dira, baldin eta deitura sortu den eskualdeko euskaldunek afrikatu gabe ebakitzen badute, *Aransolo* adibidez. Deitura baten jatorria euskalki anitzekoa denean, *Arzubia* kasu, aukera biak eman dira (*Artzuvia / Arzubia*), beti ere idazkera hedatuenari lehentasuna emanez.

9. Bustidura, edo bustidurarik eza, bere horretan utzi da: *Ilarregi / Illarregi, Egiño / Egiño, ...*

10. Iparraldeko deituretan agertzen den *h*-a gorde da: *Arhalde, Hegi, Zelhai...* baina, agertzen ez denean, ez da horren berreskurapen etimologikorik egin.

11. H-dun deitura batzuetan hasierako grafema hori hitz barrura eramanda (*Hualde* → *Uhalde*, *Huarte* → *Uharte*) iturburu duten toponimoekin lotze aldera. Aldaketa hau egiteko, deituretan agertzen diren *h* horiek garai batean gatzelaniaz idatzitako dokumentazioan *Valde*, *Varte* ez irakurtzea zutela helburu hartu da kontuan.

12. Itxuraz frantsesaren eraginez aldatu diren dardarkariak berreskuratu dira, jatorria argia bada: *Agoreta* → *Agorreta*, *Bordagarray* → *Bordagarai*.

13. *Patronimikoa + de + toponimoa* duten deituretan bi hurrenkera desberdin onartu dira: erdal hurrenkera lehenbizi eta euskal jatorrikoa —Nafarroan ongi dokumentatua— bigarrenik. Esaterako: *Díaz de Cerio* → *Diaz de Zerío / Diaz Zerioko*, *López de Abechuco* → *Lopez de Abetxuko / Lopez Abetxukoko*, *Martínez de Eulate* → *Martinez de Eulate / Martinez Eulateko*, etab. Deitura *+ de + toponimoa* egitura dutenetan ere, aukera bi eman dira, *Sarría de Etxebarri* → *Sarria de Etxebarri / Sarria Etxebarriko*. Hala ere, izendegi hau alferrik ez luzatzearren, batzordeak deitura hauen euskal osagaiaren idazkera baino ez du ematen, adibide arauemale batzuk izan ezik.

14. Tarteko marra bakarrik deitura jatorriz oinetxe desberdinen batuketaren ondorio denean onartu da. Horrela *Lezama-Legizamon* eman da, baina ez *Gazaga-Etxebarria*, *Gazagaetxebarria* baizik.

15. *Valcarlosen* modukoak, hau da, euskaldunek erabiltzen dituzten euskal izenen ordain erdaldunak, bere garaian erabakiko dira.

16. Bi bilakaera paralelo nozitu dituzten etimoetan oinarritutako deiturak —jatorria herri-izenetan dutenak (*Erronkari / Roncal*, *Nabaskoze / Navascues*,

e.a.)— aurrerago aztertuko dira banan-banan, oraingoan alde batera utzi baitira honelakoak ere.

17. Azken bokalaren galtzea jasan duten deiturak —Iparraldekoak gehienbat: *Bidart*, *Indart*, ...— lan honen hurrengo argitalpenean aztertuko dira.

NOMENCLATOR DE APELLIDOS VASCOS:

CRITERIOS

Bilbao, abril 1996

*Mikel Gorrotxategi,
secretario de la comisión de Onomástica*

CRITERIOS EMPLEADOS PARA LA REALIZACION DE ESTE NOMENCLATOR

El criterio fundamental empleado para la realización de este *Nomenclátor de Apellidos Vascos* ha sido la adecuación de los apellidos a la grafía académica, pero la comisión de Onomástica ha querido ir más allá de la simple adaptación gráfica. Como consecuencia de la no oficialidad del euskera, las lenguas de su entorno han producido grandes cambios en los apellidos vascos, y por ello, se ha considerado procedente corregir en cierta medida dichos cambios.

Con todo, en la actualidad no es posible reconstruir las formas originales alteradas por los romances vecinos, algunas veces por razones lingüísticas —por no disponer de documentación, por no ser clara su etimología, o ambas causas—, en otras debido a *razones* que se pueden catalogar como sociológicas o sociolingüísticas —los apellidos denotan un cierto nivel de estratificación, aunque en muchos casos sea muy reciente—.

Por otra parte, en muchas ocasiones no se sabe si un cambio ha sido producido por el euskera o por las lenguas del entorno. Por ejemplo, *Akarreta*, *Biorlegi*, *Berrueta* y *Fagoaga*, junto a *Akerreta*, *Beorlegi*, *Berroeta* y *Fagoaga*. En casos así se han aceptado las dos variantes o formas.

Este trabajo de adaptación no se ha realizado de una manera arbitraria, sino a través de trabajos e investigaciones especializadas, usando para ello tres fuentes principales:

1. *Apellidos vascos*, obra magistral de Luis Mitxelena.
2. Numerosos libros sobre onomástica vasca.
3. La labor de recogida de apellidos y oicónimos llevada a cabo por dos becarios durante dos años, que incluye muchas veces el testimonio vivo de los vascohablantes.

Es sabido que uno de los problemas mayores, si no el mayor, que se plantea al adecuar gráficamente los apellidos, es el concerniente al tratamiento de las sibilantes que no posee el castellano. Por ejemplo, el apellido *Betolatza* se escribía inicialmente *Betolaça*, pero más adelante el castellano perdió la pronunciación africada y posteriormente abandonó el grafema *ç* con lo que el mencionado apellido pasó a escribirse *Betolaza*, grafía impropia a todas luces.

Similar es la situación de los apellidos vasco-aquitanos. Es conocido que el francés tiene grandes problemas para transcribir las sibilantes vascas, así los sonidos [š] y [s], por ejemplo, han sido representados sin gran sistematización e indistintamente mediante los grafemas *s*, *ss*, *c* o *ç*. Por poner un ejemplo, el apellido *Izagirre* se ha escrito como *Isagirre*, *Issagirre* e *Içagirre*.

Otro grafema problemático es la *j* (y la *g* ante *i* y *e*). En el dominio lingüístico del castellano, como es bien sabido, se pronuncia con *j* gutural que con frecuencia corresponde al vasco [š], [ž] o [j], y tomando esto en cuenta, los apellidos que en grafía castellana actual son *Múgica* y *Mendeja* se han estandarizado como *Muxika* y *Mendexa*, y los apellidos *Gojenola* y *Ojanguren* como *Goienola* y *Oianguren*, por ser la grafía que les corresponde en euskera.

En este punto hay que tener en consideración que en castellano se produjo el cambio fonético de [š], [ž] > [x], y que como consecuencia de ello, aunque más tarde, se generalizaron los grafemas *j* y *g* (delante de *i* y *e* este último), en palabras que originalmente tenían sonidos prepalatales, sonoros o sordos, casi siempre en perjuicio del grafema *x* de gran extensión.

Con el fin de fundamentar las decisiones a adoptar, se ha investigado "in situ" la pronunciación particular de los topónimos y oicónimos origen de los apellidos. Como ejemplo se pueden citar los casos de *Azorín*, procedente del caserío *Atzorin* de Markina, *Arauka* que tiene su origen en el caserío *Arauca* de Leioa, o *Goya*, ampliamente difundido en Gipuzkoa y Navarra.

De acuerdo con las decisiones quinta y sexta tomadas por esta Real Academia después del VIII Congreso de Bergara de 1978, no se han tenido en cuenta en la adecuación de los apellidos, las normas que se dieron para el euskera unificado en lo referente a la palatalización y aspiración, y se han respetado las características dialectales. En muchas de las lenguas vecinas se emplea un criterio semejante y se conservan formas que no concuerdan con las grafías estándar: *Navascués* / *Nabasqués* (sic), *Dublanc* / *Dublanc* o *Schimidt* / *Schimmt* / *Schimd*.

Aunque la pronunciación actual ha sido decisiva en muchos casos, es sabido que los apellidos y los topónimos, aún estando muy relacionados, no son totalmente iguales. Por ejemplo, *Cenarruza*, *Egúzquiza* y *Lazcano* se han estandarizado como *Zenarrutza*, *Eguzkitza* y *Lazkano*, lo que ha supuesto la adaptación gráfica: *c* → *z*, *c* o *qu* → *k* —aunque en el caso de los dos primeros también se dé una adaptación fonética—, y la recuperación de las africadas

originales, pero sin llegar a los localismos *Ziortza*, *Euzkitze* y *Lazkao*. De esta forma, al proceder a la adaptación gráfica, se ha tratado de mantener un equilibrio entre los topónimos-oicónimos y los apellidos, tomando en cuenta la pronunciación de los primeros, pero respetando la estratificación de los últimos.

Este nomenclátor abarca toda Euskal Herria, si bien la dificultad para obtener datos y la gran transformación que han sufrido los apellidos de la Vasconia aquitana ha limitado el número de apellidos originarios de dicha región. Ello, unido al hecho de que en la misma el euskera no posee status oficial, ha tenido como consecuencia la escasez de solicitudes.

CRITERIOS PARTICULARES

1. Se entiende por apellido vasco aquel que, independientemente de su procedencia lingüística, se ha afincado en Euskal Herria, aunque en esta primera edición no aparezca la mayor parte de los que son de origen lingüístico no euskérico.

2. Las variantes procedentes de una misma forma inicial se han mantenido sin unificar, salvo cuando se han producido cambios arbitrarios y falsas etimologías. Así, en el caso de *Garitonaindia* / *Garitonandia* se respetan las dos variantes, pero no en *Uribeetxeberria*, variante moderna, por desconocimiento dialectal, del originario *Uribeetxebarria*.

3. La *D'* o *D-* inicial que encontramos en numerosos apellidos vascos —especialmente en aquellos procedentes del País Vasco aquitano— y que tiene su origen en la aglutinación de la preposición románica *De*, ha sido suprimida: *Dapesteguy* → *Apeztegi*, *Daranaz* → *Aranatz*, *Durruty* → *Urruti*, etc.

4. En la mayoría de los apellidos que han sufrido pérdida de la vocal inicial se han propuesto las dos variantes —la original (viva en antropónimos, oicónimos o topónimos vascos) y la que ha sufrido aféresis—, dando preferencia a la primera: *Recalde* → *Errekalde* / *Rekalde*, *Respaldiza* → *Arespalditza* / *Respalditza*.

5. Las formas basadas en cambios fonéticos y gráficos externos a la lengua vasca se han retrotraído a su forma euskérica inicial, habiéndose investigado para ello la pronunciación vasca actual: *Ixurko*, *Lexartza*, *Kerexeta*, *Muxika* y no *Ijurko*, *Kerejeta*, *Lejartza* o *Mujika*.

6. Cuando el testimonio disponible, topónimo u oicónimo, es seguro o cuando la etimología es clara, se han recuperado las sibilantes africadas que no poseen los romances vecinos: *Eguzquiza* → *Eguzkitza*, *Icaza* → *Ikatza*, *Imaz* → *Imatz*, *Oscoz* → *Oskotz*, *Pagaza* → *Pagatza*,...

7. En los casos en que encontramos los grafemas *s* y *z* en variantes de un apellido único en origen, si los testimonios actuales o la etimología es clara,

se ha procedido a la unificación: *Apestegey / Apeztegui* → *Apeztegi*. Pese a ello, se han respetado los hábitos dialectales, en el occidental *Basterretxea* por ejemplo. Cuando el origen de un apellido es pluridialectal, como *Gastañaga*, se ofrecen ambas posibilidades (*Gaztañaga / Gastañaga*) dando, sin embargo, prioridad a la pronunciación originaria.

8. Las sibilantes fricativas se han africado tras sonora (*n, l, r*). Sin embargo, también se han aceptado formas sin africar siempre que los vasco-parlantes de la zona original del apellido lo pronuncien así, como ocurre con *Aran-solo*. Si el origen de un apellido es pluridialectal, por ejemplo *Arzubia*, se ofrecen ambas posibilidades (*Artzubia / Arzubia*) dando, sin embargo, prioridad a la más común —*Artzubia* en este caso—.

9. La palatalización o la ausencia de la misma ha sido respetada: *Illarregi / Illarregi, Egiño / Egiño,...*

10. Se ha conservado la **H** presente en muchos apellidos originarios del País Vasco aquitano: *Arhalde, Hegi, Zelhai,...* pero no se ha realizado ningún tipo de reconstrucción etimológica cuando dicha *h* no aparece.

11. En algunos apellidos que presentan una *h* inicial, este grafema ha sido trasladado a posición interior (*Hualde* → *Uhalde*, *Huarte* → *Uharte*) por analogía con los topónimos en que dichos apellidos tienen su origen. Para realizar este cambio se ha tomado en cuenta que, en cierta época, la mencionada *h* tenía la función de evitar lecturas como *Valde* y *Varte* en la documentación escrita en castellano.

12. Las vibrantes alteradas, seguramente por influencia del francés, han sido restituidas a la forma inicial si su origen es claro: *Agoreta* → *Agorreta*, *Bordagarray* → *Bordagarai*.

13. En los apellidos compuestos de *patronímico + de + topónimo* se han aceptado dos ordenaciones diferentes: la común en romance en primer lugar, y la propia de la lengua vasca —ampliamente atestiguada en Navarra— en segundo. Por ejemplo: *Díaz de Cerio* → *Diaz de Zerio/Diaz Zerioko*, *López de Abechuco* → *Lopez de Abetxuko/Lopez Abetxukoko*, *Martínez de Eulate* → *Martinez de Eulate/Martinez Eulateko*. En aquellos apellidos cuya estructura es *topónimo + de + topónimo*, también se han aceptado ambas ordenaciones: *Sarría de Echebarri* → *Sarria de Etxebarria / Sarria Etxebarriko*. Con todo, y para no alargar este nomenclátor innecesariamente, la comisión no trata más que el elemento vasco de dichos apellidos, excepción hecha de algunos ejemplos normativos.

14. El guión interior únicamente se ha mantenido en el caso de apellidos compuestos cuyo origen está en la unión de dos casas solariegas diferentes. Por tanto, se admite *Lezama-Legizamon*, pero no *Gazaga-Etxebarria*, debiendo escribirse *Gazagaetxebarria*.

15. La grafía correcta de nombres como *Valcarlos*, dobles castellanos de nombres euskéricos usados por los vascoparlantes, será analizada en su momento.

16. Los apellidos basados en étimos que han sufrido dos evoluciones paralelas —especialmente los apellidos que tienen su origen en nombres de poblaciones (*Erronkari / Roncal*, *Nabaskoze / Navascués*,...) serán tratados en una próxima edición.

17. Los apellidos que han sufrido pérdida de la vocal final, (originarios principalmente del País Vasco aquitano: *Bidart*, *Indart*,...) serán, asimismo, tratados en una próxima edición.